Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko irailaren 8a, asteartea — 170 — Martes, a 8 de septiembre de 2026

USURBILGO UDALA

2026. urterako Usurbilgo tokiko zerbitzu txikien belaunaldi-erreleboa sustatzeko dirulaguntza oinarriak.

Alkateak 2026ko irailaren 1ean, 2026/1284 dekretu bidez 2026. urterako Usurbilgo tokiko zerbitzu txikien belaunaldi-erreleboa sustatzeko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Ondorioz, oinarri arautzaileen testu osoa argitaratzen da eta iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 2027ko urriaren 31 arteko epea ematen da interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Inprimakien inguruko oharra: Inprimakiak interesatuen eskura egongo dira udaleko web orrian, dirulaguntzen atalean.

Euskaraz: https://www.usurbil.eus/eu/diru-laguntzak.

Gazteleraz: https://www.usurbil.eus/es/subvenciones.

— Erabakiaren aurkako errekurtsoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka jotzeko:

Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Usurbil, 2026ko irailaren 1a.—Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea. (5817)

AYUNTAMIENTO DE USURBIL

Subvención para el fomento del relevo generacional de los pequeños servicios locales de Usurbil para el año 2026.

La Alcaldesa, mediante decreto 2026/1284, de 1 de septiembre de 2026, ha aprobado las bases reguladoras de la subvención para el fomento del relevo generacional de los pequeños servicios locales de Usurbil.

Se publican el texto íntegro de las bases reguladoras y se abre plazo desde el día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el 31 de octubre del 2027, para que las personas interesadas presenten las solicitudes junto con toda la documentación necesaria para la obtención de las ayudas económicas.

Nota sobre los impresos: Los impresos estarán a disposición de las personas o entidades interesadas en la página web municipal, en el apartado de subvenciones.

En euskera: https://www.usurbil.eus/eu/diru-laguntzak.

En castellano: https://www.usurbil.eus/es/subvenciones.

— Recursos contra el acuerdo:

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Contra el mismo podrá interponerse recurso potestativo de reposición o recurso contencioso-administrativo.

a) Antes de acudir a los tribunales, el solicitante podrá, si así lo desea, interponer recurso de reposición de conformidad con lo establecido en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Plazo: Un mes, a contar desde el día siguiente a recibir la notificación del presente acuerdo.

Dónde: Ante la Alcaldía.

b) En otro caso, podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo en los términos previstos en los artículos 25 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

Plazo: Dos meses a contar desde el día siguiente a recibir la notificación del presente acuerdo.

Dónde: Ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia.

c) Para recurrir la resolución del recurso de reposición:

Plazo: Dos meses a contar desde el día siguiente a recibir la notificación de la resolución del recurso de reposición.

Si, por el contrario, la Administración no contestase al recurso de reposición, el interesado podrá interponer recurso contencioso-administrativo en cualquier momento a partir del día siguiente a aquel en que se produzca la acción presunta conforme a su normativa específica.

Dónde: Ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia.

Usurbil, a 1 de septiembre de 2026.—La alcaldesa, Agurtzane Solaberrieta Mesa. (5817)

EK\CV GAO-I-2026-05817

Usurbilgo tokiko zerbitzu txikien belaunaldi-erreleboa sustatzeko dirulaguntza.

1. artikulua. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Usurbilgo Udalak tokiko ohiko zerbitzuen ondorengoetaratzea eta belaunaldi-erreleboa sustatzeko emango dituen 2026ko dirulaguntzak arautzea, lehiarik gabeko norgehiagoka-erregimenean, lehendik dauden jardueren jarraipena bermatzen duten titular berriei laguntzeko. Dirulaguntza hauen bidez, lehendik Usurbilen ezarriak dauden eta bideragarriak diren tokiko merkataritza, ostalaritza eta bestelako ohiko zerbitzuen itxiera saihestu nahi da, herritarrentzat oinarrizkoak diren zerbitzu horien jarraipena bermatzeko.

Helburua, negozioen titulartasuna hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoei laguntzea da, bideragarritasun ekonomikoko eta egonkortasuneko baldintzetan jarraituko dutela bermatuz.

2. artikulua. Araubide juridikoa.

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian honako hauek aplikatuko dira: Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza, 2026-2028rako dirulaguntzen plan estrategikoa eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta gai honi aplikatu dakizkiokeen indarreko arauak.

3. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen kontra Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina.

Halaber, kontuan izango da 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena. Honen arabera, 3. artikuluan eta 17 eta 19.4 artikuluetan jasotzen diren printzipio orokorrak betetzeko eskatuko zaie EAEko botere publikoren batekin kontratuak edo lankidetza-hitzarmenak sinatzen dituzten entitate pribatuei, EAEko botere publikoen partaidetza dutenei edo botere publikoen laguntzen edo dirulaguntzen onuradun direnei, haien arteko erlazioari dagokion denboran eta gaian. Artikulu horietan hau jasotzen da:

a) EAEko botere publikoek, beren azterlan, ikerketa, estatistika edo datu bilketa guztietan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea.

b) EAEko botere publikoek hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar dute irudi eta hizkera mota guztietan, zuzenean eta beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.

4. artikulua. Helburua.

Oinarri hauetan araututako laguntzen helburua tokiko zerbitzu txikien iraunkortasuna sustatzea da, jarduera ekonomiko finkatuen transmisio ordenatuko prozesuak erraztuz.

Bereziki, dauden negozioen jarraikortasuna bermatu nahi da, transmisioaren ondorengo hasierako fasean egonkortzen lagundu, eta jarduerari atxikitako enpresa-ezagutza behar bezala transferitzen lagundu.

5. artikulua. Baliabide ekonomikoak.

Aurtengo ekitaldiko baliabide ekonomikoak 35.800 € dira. Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da 1.5000.471.431.00.01.2026. Dirulaguntza hau hiru dirulaguntza lerroen artean banatuko da. 11.000 € eskualdaketari lotutako gastuei aurre egiteko eta beste 16.800 € bi urtetako lokalaren alokairu edo erosketa gastuak diruz laguntzeko lerrorako. Azken lerro honetarako gehienez ere 9.600 € erabiliko dira 1. urtean eta 7.200 € bigarren urtean. Gainera beste 8.000 € ezarri dira ezagutza edo know-how-aren transmisiorako.

Alabaina, jasotako eskabideen kopuruak eta zenbatekoak ezarritako baliabide ekonomikoak gaindituko balitu, Usurbilgo Udalak zenbateko hori handitu ahal izango du, bere finantza-aukeren arabera.

Subvención para el fomento del relevo generacional de los pequeños servicios locales de Usurbil.

Artículo 1. Objeto.

El objeto de las presentes bases es la regulación de las subvenciones que el Ayuntamiento de Usurbil otorgará en 2026 para el fomento de la sucesión y relevo generacional de los servicios ordinarios locales, en régimen de concurrencia competitiva, en apoyo de los nuevos titulares que garanticen la continuidad de las actividades ya existentes. Con estas subvenciones se pretende evitar el cierre de los servicios habituales de comercio local, hostelería y otros servicios ya implantados y viables en Usurbil, para garantizar la continuidad de estos servicios básicos para la ciudadanía.

El objetivo es ayudar a las personas físicas o jurídicas que asuman la titularidad de sus negocios, garantizándoles su permanencia en condiciones de viabilidad económica y estabilidad.

Artículo 2. Régimen jurídico.

En todo lo no dispuesto en estas bases será de aplicación la Ordenanza reguladora de las subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil, el Plan Estratégico de Subvenciones 2026-2028 y Ley 38/2003 General de Subvenciones y normativa vigente aplicable a esta materia.

Artículo 3. Texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

Asimismo, se tendrá en cuenta lo establecido en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. En virtud de ello, a las entidades privadas que suscriban contratos o convenios de colaboración con los poderes públicos vascos o que estén participadas por estos o sean beneficiarias de ayudas o subvenciones concedidas por ellos les será exigible durante el tiempo y materia sobre la que verse su relación con el poder público correspondiente el cumplimiento de los principios generales del artículo 3 y de los artículos 17 y 19.4:

a) Incluir sistemáticamente la variable sexo en las estadísticas, encuestas y recogida de datos que lleven a cabo.

b) Los poderes públicos vascos deben hacer un uso inclusivo y no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes en los documentos y soportes que produzcan directamente o a través de terceras personas o entidades.

Artículo 4. Objetivo.

El objetivo de las ayudas reguladas en estas bases es promover la sostenibilidad de los servicios locales pequeños, facilitando los procesos de transmisión ordenada de actividades económicas consolidadas.

En particular, se pretende garantizar la continuidad de los negocios existentes, contribuir a su estabilización en la fase inicial posterior a la transmisión y contribuir a la correcta transferencia del conocimiento empresarial afecto a la actividad.

Artículo 5. Recursos económicos.

Los recursos económicos del presente ejercicio ascienden a 35.800 €. El gasto irá con cargo a esta partida presupuestaria 1.5000.471.431.00.01.2026. Esta subvención se distribuirá entre las tres líneas subvencionales. 11.000 € para hacer frente a los gastos asociados a la transmisión y otros 16.800 € para la línea subvencional de alquiler o compra de local bianual. Para esta última línea se destinará un máximo de 9.600 € en el primer año y 7.200 € en el segundo. Además se han establecido 8.000 € adicionales para la transmisión de conocimiento o know-how.

En particular, se pretende garantizar la continuidad de los negocios existentes, contribuir a su estabilización en la fase inicial posterior a la transmisión y contribuir a la correcta transferencia del conocimiento empresarial afecto a la actividad.

EK\CV GAO-I-2026-05817

6. artikulua. Onuradunak.

Dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira Usurbilgo tokiko zerbitzu jarduera baten jarraipena ziurtatzen duten pertsona fisikoak (norbere kontura aritzen diren langileak edo autonomoak), pertsona juridikoak (edozein dutela ere izaera juridikoa) eta ondasun-erkidegoak, baldin eta oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Edozein kasuan, ez zaie dirulaguntzarik emango kideak aukeratzeko prozesuan edo jardunean sexu-bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei. Udalak atzematen badu elkarte edo erakundeak sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duela, dirulaguntza berdintasun legedia betetzearen arabera baldintzatua geratuko da, hau da, elkarte edo erakundeen estatutu edo funtzionamendu arauetan jaso beharko da kideak aukeratzeko prozesuan eta jardunean ez dela inor deusengatik baztertzen, bereziki ez dela sexuarengatik baztertzen.

Beraz elkarte edo erakundeak sexuaren ziozko bereizkeria ezaren konpromiso aktiboa bere estatutu edo funtzionamendu arauetan jaso beharko du dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko momenturako.

Onuradunek beti ere, dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorraren 14. artikuluak ezartzen dituen betebehar guztiak bete beharko dituzte.

7. artikulua. Baldintzak.

Dirulaguntza hau jaso ahal izateko, jarduera hartzen duen pertsonak edo entitateak ondoko baldintza guztiak bete beharko ditu:

— Jarduera kontsolidatu baten jarraipena: jarduera ekonomikoa kontsolidatutzat joko da, jardueraren amaieraren, gutxienez 10 urteko antzinatasuna duen negozioa bada. Eta eskualdatu beharreko negozioak, funtzionamenduan egon beharko du titular berriak hartu aurretik, eskualdatzea gertatu bitartean jarduera funtzionamendurik gabe egondako denbora tartea, gehienez 12 hilabetekoa izanik, titular berriaren altaren aurretik.

— Jarduera motari dagokionean: eskualdatutako jarduera ekonomikoak ondoko jarduera motetako bat izan beharko du:

≡ Ohiko tokiko merkataritza eta ostalaritza jarduerak, azken bezeroarekin edo herritarrarekin harreman zuzena dutenak.

≡ Pertsonentzako zerbitzuak, eguneroko bizitzari lotutakoak.

≡ Kale edo eremu jakin batean biziberritze ekonomiko eta sozialerako lagungarria izaten jarraituko duela justifikatzen den bestelako edozein jarduera, balorazio tekniko arrazoitu baten bidez.

— Eskualdaketaren arrazoia: jardueraren eskualdaketa edo titular-aldaketa honako arrazoi hauetako baten ondorioz gertatu beharko da:

≡ Jarduera uzten duen pertsonaren erretiroa.

≡ Jarduera uzten duen pertsonaren erretiro-adinera hurbiltzea, gutxienez 60 urte beteta izanik.

≡ Kausazko egoerak, hala nola ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.

≡ Jarduera uzten duen pertsonaren heriotza.

≡ Behar bezala egiaztatutako antzeko beste edozein egoera inguruabar.

— Eskualdaketa erreala eta egiaztatua: jarduera ekonomikoaren eskualdaketak, erreala eta egiaztatua izan beharko du, kontratu formalaren bidez.

— Eskualdaketak jardueraren jarraipena bermatu beharko du: beharrezko egokitzapen edo modernizazioak egin arren, titular berriak, aurreko jarduera-mota berdinarekin jarraituko du.

Artículo 6. Beneficiarios.

Podrán ser beneficiarias de estas ayudas las personas físicas (trabajadores por cuenta propia o autónomos), personas jurídicas (cualquiera que sea su naturaleza jurídica) y comunidades de bienes que acrediten la continuidad de una actividad de servicios en el ámbito local de Usurbil, siempre que cumplan los requisitos establecidos en estas bases y en la correspondiente convocatoria.

En cualquier caso, no se concederán subvenciones a asociaciones o entidades que discriminen por razón de sexo en el proceso de selección o en la actividad de sus miembros. En el caso de que el Ayuntamiento detecte la existencia de discriminación por razón de sexo, la subvención quedará condicionada al cumplimiento de la legislación de igualdad, es decir, a que los estatutos o normas de funcionamiento de las asociaciones o entidades recojan que en el proceso de elección de sus miembros y en su funcionamiento no se excluye a ninguna persona por razón de sexo, especialmente por razón de sexo.

En consecuencia, la asociación o entidad deberá recoger en sus estatutos o normas de funcionamiento el compromiso activo de no discriminación por razón de sexo para el momento de presentación de la justificación de la subvención.

Los beneficiarios deberán cumplir, en todo caso, las obligaciones establecidas en el artículo 14 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Artículo 7. Requisitos.

Para poder acceder a esta subvención, la persona o entidad adquiriente de la actividad deberá cumplir todos los requisitos siguientes:

— Continuidad de una actividad consolidada: la actividad económica se considerará consolidada cuando se trate de un negocio cuyo cese tenga una antigüedad mínima de 10 años. Y el negocio a transferir deberá estar en funcionamiento antes de la toma de posesión de los nuevos titulares y mientras se efectúe la transmisión, el tiempo que la actividad permanecerá sin funcionamiento será como máximo de 12 meses, antes del alta del nuevo titular.

— En cuanto al tipo de actividad: la actividad económica transmitida deberá ser una de las siguientes:

≡ Actividades de comercio y hostelería local habituales, que tengan contacto directo con el cliente final o ciudadano.

≡ Servicios para personas, relacionados con la vida cotidiana.

≡ Cualquier otra actuación que se justifique que continúe contribuyendo a la regeneración económica y social de una determinada calle o zona, mediante valoración técnica razonada.

— Motivo de la transmisión: la transmisión o cambio de titular de la actividad deberá producirse por alguna de las siguientes causas:

≡ Jubilación de la persona cesante.

≡ Acercarse a la edad de jubilación de la persona que cese en la actividad, al menos con 60 años cumplidos.

≡ Situaciones causales como incapacidad permanente total, absoluta o gran invalidez.

≡ Fallecimiento de la persona que cesa la actividad.

≡ Cualquier otra circunstancia análoga debidamente acreditada.

— Transmisión real y acreditada: la transmisión de la actividad económica deberá ser real y acreditada mediante contrato formal.

— La transmisión deberá garantizar la continuidad de la actividad: a pesar de las adaptaciones o modernizaciones necesarias, el nuevo titular continuará con el mismo tipo de actividad anterior.

EK\CV GAO-I-2026-05817

— Kokapena: jardueraren jarraipena, lehendik jarduera gauzatzen zen establezimendu berean egin beharko da. Hala ere, salbuespenez, jarduera beste establezimendu batera lekualdatu ahal izango da, baldin eta lekualdaketa hori behar bezala arrazoituta badago eta jardueraren jarraipena, bideragarritasuna edo interes orokorra bermatzeko beharrezkotzat jotzen bada. Kasu horietan, lekualdaketa txosten tekniko arrazoitu baten bidez baloratuko da, eta txosten horrek jardueraren jarraipena bermatzen dela eta dirulaguntzaren xedearekin bat datorrela egiaztatu beharko du.

— Jarduerari eusteko konpromisoa: onuradunak eskualdaketaren xede den jarduerari eutsi beharko dio, titular berriak jardueran alta eman duen egunetik zenbatzen hasita, gutxienez hamabi hilabetez. Betebehar hori betetzen ez bada, emandako dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko da, aplikagarria den araudian aurreikusitakoaren arabera.

— Dirulaguntza eskatzeko orduan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea eta baita ere Gizarte Segurantzan.

— Zerga eta gizarte-segurantzako betebeharrak: onuradunek, dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik eta ordainketa egin arte, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izan beharko dituzte, indarrean dagoen araudiaren arabera. Era berean, ezingo dute Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako debekuren batean egon, dirulaguntzen onuradun izateko.

— Pertsona edo erakunde eskatzaileak nahitaez parte hartu beharko du Beterri-Buruntzako Mankomunitateak garatutako belaunaldi-erreleborako programan, tutoretza teknikoko prozesua barne. Prozesu horretan, gutxienez, negozioaren bideragarritasun ekonomikoaren azterketa, transmisio-baldintzen baliozkotzea eta jardueraren jarraitutasuna bermatzeko ekintza-plan baten definizioa sartuko dira.

— Prozesu horren ondorioz, Beterri-Buruntzako Mankomunitateak aldeko txosten teknikoa egin beharko du, belaunaldi-erreleboa oinarri hauen helburuetara egokitzen dela bermatzeko.

8. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen transmisio motak.

Oinarri hauetan araututako laguntzak jaso ahal izango dituzte honako hauen bidez gauzatzen diren transmisio-prozesuek:

— Unitate ekonomikoaren salerosketa.

— Negozioaren salerosketa, lokalaren errentamenduarekin.

— Industriaren edo negozioaren errentamendua.

— Kontrol-aldaketa efektiboa dakarten sozietate-partaidetzak eskuratzea.

Kasu guztietan behar bezala egiaztatu beharko da negozioaren benetako transmisioa edo haren kontrol eraginkorra dagoela.

9. artikulua. Transmisioa errealtzat hartzea.

Oinarri hauen ondorioetarako, benetako eskualdaketa dagoela ulertuko da honako hauek batera gertatzen direnean:

— Alderdien arteko kontratu bat formalizatzea.

— Behar bezala egiaztatutako kontraprestazio ekonomiko edo baliokide bat dagoela.

— Negozioaren funtsezko elementuak materialak –zein inmaterialak– transmititzea.

— Titulartasun berriak bere gain hartzea jardueraren kudeaketa.

Udalak laguntza ukatu ahal izango du, jardueraren simulazioaren edo jarraipen formal hutsaren zantzuak hautematen baditu.

— Localización: la actividad deberá realizarse en el mismo establecimiento en el que se desarrollaba la actividad. No obstante, excepcionalmente, la actividad podrá trasladarse a otro establecimiento siempre que dicho traslado esté debidamente motivado y se considere necesario para garantizar la continuidad, viabilidad o interés general de la actividad. En estos casos, el traslado se valorará mediante informe técnico motivado que acredite la continuidad de la actividad y su adecuación al objeto de la subvención.

— Compromiso de mantenimiento de la actividad: el beneficiario deberá mantener la actividad objeto de transmisión durante un periodo mínimo de doce meses a partir de la fecha de alta en la actividad del nuevo titular. El incumplimiento de esta obligación dará lugar al reintegro total o parcial de la subvención concedida, de acuerdo con lo previsto en la normativa aplicable.

— Estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas (IAE) y en la Seguridad Social en el momento de solicitar la subvención.

— Obligaciones tributarias y de seguridad social: las personas beneficiarias deberán estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, con anterioridad a la resolución de concesión de la subvención y hasta el pago de la misma, de acuerdo con la normativa vigente. Asimismo, no podrán estar incursas en ninguna de las prohibiciones previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, para ser beneficiarias de subvenciones.

— La persona o entidad solicitante deberá participar obligatoriamente en el programa de relevo generacional desarrollado por la Mancomunidad de Beterri-Buruntza, incluido el proceso de tutoría técnica. Este proceso incluirá, al menos, un estudio de viabilidad económica del negocio, la validación de las condiciones de transmisión y la definición de un plan de acción para garantizar la continuidad de la actividad.

— Como consecuencia de este proceso, la Mancomunidad de Beterri-Buruntza deberá emitir un informe técnico favorable para garantizar la adecuación del relevo generacional a los objetivos de estas bases.

Artículo 8. Tipos de transmisiones subvencionables.

Podrán acceder a las ayudas reguladas en estas bases los procesos de transmisión que se realicen a través de:

— Compraventa de la unidad económica.

— Compraventa del negocio con arrendamiento del local.

— Arrendamiento de industria o negocio.

— Adquisición de participaciones sociales con cambio efectivo de control.

En todos los casos deberá acreditarse debidamente la existencia de una transmisión real del negocio o su control efectivo.

Artículo 9. Consideración de la transmisión como real.

A los efectos de estas bases, se entenderá que existe transmisión efectiva cuando concurran:

— Formalización de un contrato entre las partes.

— La existencia de una contraprestación económica o equivalente debidamente acreditada.

— Transmisión de los elementos fundamentales del negocio, tanto materiales como inmateriales.

— La nueva titularidad asumira la gestión de la actividad.

El Ayuntamiento podrá denegar la ayuda si detecta indicios de simulación o mero seguimiento formal de la actividad.

EK\CV GAO-I-2026-05817

10. artikulua. Diruz lagun daitezkeen jarduketak eta gastuak.

Deialdi honen xedearekin bat etorriz, diruz lagun daitezkeen jarduketak, jarduera ekonomikoaren ondorengoetaratze eta eskualdaketa-prozesuarekin zuzenean lotutakoak izango dira, baldin eta jardueraren jarraipena, egonkortzea eta negozio-ezagutzaren transmisiora bideratuta badaude.

* 1. lerroa: Negozioa eskualdatzeari dagozkionak, gehienez ere 5.500 euroko dirulaguntza.

— Eskualdaketa-prozesuarekin lotutako gastuak: eskualdaketa-prozesuarekin lotutako aholkularitza juridikoaren, ekonomikoaren edo fiskalaren gastuak, prozesua behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak direnean.

— Eskualdatzearen formalizazioari lotutako gastuak: notaritza-gastuak, eskualdaketa edo traspaso-kontratuen formalizazioari dagozkionak. Eta, jarduera ekonomikoaren edo haren atalen balorazio-gastuak, eskualdaketa-prezioa edo merkataritza-funtsaren balioa zehazteko egindakoak.

— Jarduera ekonomikoaren ondasun eta eskubideen eskualdaketari lotutako gastuak (merkataritza-funtsa, ekipamendua eta antzekoak): jarduera ekonomikoaren eskualdaketari lotutako gastutzat joko dira negozioaren ondasun material eta ukiezinen transmisioarekin zuzenean lotutako gastuak, bereziki merkataritza-funtsaren ordainketari, ekipamenduaren eskualdaketari edo jardueraren jarraipenerako ezinbestekoak diren bestelako elementuei dagozkienak. Gastu horiek eskualdaketa- edo salerosketa-kontratu batean behar bezala formalizatuta egon beharko dira. Merkataritza-funtsaren ordainketa diruz lagungarri izango da, balio ukiezinen multzo gisa ulertuta, hala nola, jarduerari lotutako bezero-zorroa eta merkatu-posizionamendua, jardueraren ibilbidea, ospea eta izen komertziala eta jardueraren know-how operatiboa. Udalak, beharrezkotzat jotzen badu, balorazio-txosten tekniko osagarria eskatu ahal izango du, merkataritza-funtsaren edo eskualdatutako elementuen balioa, egokia eta proportzionatua dela egiaztatzeko.

— Jardueraren jarraipena bermatzeko hasierako egokitzapenak: jardueraren jarraipena eta egonkortzea ahalbidetzeko hasierako egokitzapen tekniko edo operatibo ez-materialak ere diruz lagungarriak izango dira, hala nola, kudeaketa-softwareak, marka komertziala eta irudi korporatiboaren egokitzapenak, baldin eta egokitzapen horiek eskualdaketa gauzatzeko ezinbestekoak badira. Dirulaguntza honi dagokionez, ez dira diruz lagungarriak izango Usurbilgo Udalaren Usurbil Zabalik dirulaguntzaren bitartez.

— Jarduera ekonomikoa egonkortzeko gastuak, ondorengoetaratze-kasuetan: jardueraren jarraipena eta bideragarritasuna bermatzeko beharrezkoak direnean, diruz lagungarri izango dira, halaber, jarduera martxan mantentzeko beharrezkoak diren hasierako inbertsioak edo egokitzapenak, baldin eta jardueraren funtsezko izaera aldatzen ez badute.

Gastu horiek proportzionalak izan beharko dira dirulaguntzaren xedearekin eta jardueraren ezaugarriekin, eta behar bezala justifikatuta egon beharko dira aurkeztutako dokumentazioaren bidez. Udalak, beharrezkotzat jotzen badu, txosten tekniko arrazoitu bat eskatu ahal izango du gastu horien egokitasuna, beharrezkotasuna eta proportzionaltasuna baloratzeko. Gastu mota horiek soilik diruz lagunduko dira jarduera ekonomiko baten ondorengoetaratze-prozesuaren barruan, eta ezingo dira aplikatu jarduera ekonomiko berriak abiarazteko; ondorioz, ez dira diruz lagungarriak izango Usurbilgo Udalaren «Usurbil Zabalik» dirulaguntza-lerroaren xede diren kasuetan.

* 2. lerroa: Eskuordetzea ematen den lokalaren alokairu edo erosketa gastuak ordaintzeko laguntza.

Jarduera ekonomikoa egonkortzeko lokalaren alokairuaren gastua, bi urtez lagunduko da:

— Lehenengo urtean 6 €/m²/hilean, gehienez ere 400 €/hilean.

Artículo 10. Actuaciones y gastos subvencionables.

De acuerdo con el objeto de esta convocatoria, las actuaciones subvencionables serán aquellas directamente relacionadas con el proceso de sucesión y transmisión de la actividad económica, siempre que estén orientadas a la continuidad, estabilización y transmisión del conocimiento de negocio.

* Línea 1: Las correspondientes a la transmisión del negocio, hasta un importe máximo de subvención de 5.500 euros.

— Gastos relacionados con el proceso de transmisión: gastos de asesoramiento jurídico, económico o fiscal relacionados con el proceso de transmisión que resulten imprescindibles para la correcta ejecución del mismo.

— Gastos asociados a la formalización de la transmisión: gastos notariales correspondientes a la formalización de los contratos de transmisión o traspaso. Y, los gastos de valoración de la actividad económica o de sus secciones para determinar el precio de transmisión o el valor del fondo de comercio.

— Gastos asociados a la transmisión de bienes y derechos de la actividad económica (fondo de comercio, equipamiento y similares): se considerarán gastos vinculados a la transmisión de la actividad económica los gastos directamente relacionados con la transmisión de los bienes materiales e intangibles del negocio, en particular los correspondientes al pago del fondo de comercio, a la transmisión del equipamiento u otros elementos indispensables para la continuidad de la actividad. Estos gastos deberán estar debidamente formalizados en un contrato de transmisión o compraventa. Será subvencionable el pago del fondo de comercio entendido como un conjunto de valores intangibles, tales como cartera de clientes y posicionamiento de mercado vinculados a la actividad, trayectoria de la actividad, prestigio y nombre comercial y know-how operativo de la actividad. El Ayuntamiento, si lo considera necesario, podrá solicitar un informe técnico complementario de valoración que acredite la idoneidad y proporcionalidad del valor del fondo de comercio o de los elementos transmitidos.

— Adaptaciones iniciales para garantizar la continuidad de la actividad: también serán subvencionables las adaptaciones técnicas u operativas inmateriales iniciales que permitan la continuidad y estabilización de la actividad, tales como los softwares de gestión, la marca comercial y las adaptaciones de imagen corporativa que resulten imprescindibles para la materialización de la transmisión. A efectos de esta subvención, no serán subvencionables a través de la subvención Usurbil Zabalik del Ayuntamiento de Usurbil.

— Los gastos de estabilización de la actividad económica, que sean necesarios para garantizar la continuidad y viabilidad de la actividad, serán también subvencionables las inversiones iniciales o adaptaciones necesarias para el mantenimiento de la actividad, siempre que no alteren la naturaleza esencial de la misma.

Dichos gastos deberán ser proporcionales al objeto de la subvención y a las características de la actividad, y estar debidamente justificados mediante la documentación presentada. El Ayuntamiento, si lo considera necesario, podrá solicitar un informe técnico motivado para valorar la idoneidad, necesidad y proporcionalidad de dichos gastos. Este tipo de gastos sólo serán subvencionables dentro del proceso de sucesión a una actividad económica y no serán de aplicación para la puesta en marcha de nuevas actividades económicas, por lo que no serán subvencionables en los casos que sean objeto de la línea subvencional «Usurbil Zabalik» del Ayuntamiento de Usurbil.

* Línea 2: Ayuda para sufragar los gastos de alquiler o compra del local en el que se delega.

El gasto del alquiler del local de estabilización de la actividad económica se subvencionará durante dos años:

— El primer año, 6 €/m²/mes, hasta un máximo de 400 €/mes.

EK\CV GAO-I-2026-05817

— Bigarren urtean 5 €/m²/hilean, gehienez ere 300 €/hilean.

Hala ere, laguntzaren gehieneko zenbatekoak ez du inolaz ere gaindituko zor den errenta.

Lokalaren erosketa: Lokalak erosteko laguntza ekonomikoa honela kuantifikatuko da: lokal horrek dirulaguntza hori jasotzeko gehieneko epean, hau da, 2 urtean, alokairuan hartzeagatik jasoko lukeen laguntzaren pareko zenbatekoa izango da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiona izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita) eta ez dira lokalaren erabilerari lotuak egon daitezkeen bestelako gastuak kontuan hartuko (komunitate gastuak, ura eta argindarraren gastuak, eta abar).

Bigarren urtean dirulaguntza jasotzen jarraitu ahal izateko, dagokion urteko deialdian dirulaguntzaren luzapena eskatu beharko da, deialdi ezberdinetan guztira lortutako dirulaguntza gehienez ere 24 hilabeteko alokairu gastuei dagokiona izanik.

* 3. lerroa: Ezagutza edo know-how-aren transmititzearekin lotutako gastuak, gehienez ere 4.000 €.

Era berean, diruz lagunduko dira negozioaren ezagutza edo know- how-a transmititzearekin lotutako gastuak eta berau gauzatzeko bi aukera hauetatik bat baliatu daiteke:

— Jarduera ekonomikoa hartzen duen pertsona edo entitateak, aurreko titularra kontratatzea.

Kontratazio honekin lotutako gastuak diruz lagungarri izango dira, kontratazio horren xede nagusia jardueraren ezagutza, esperientzia eta know-how operatiboaren transmisioa bada. Diruz lagungarri izango dira, aurreko titularraren kontratazioari lotutako soldata gastuak eta Gizarte Segurantzako enpresa-kuotak. Kontratua, gutxienez lanaldi erdiz hilabetekoa izango da eta gehienez ere hiru hilabetetakoa.

— Negozioa utziko duen titularrak ezagutzaren transmisiorako aholkularitzako edo laguntzako merkataritza kontratua formalizatzea. Kasu honetan, ezagutza eskualdatzeko, gutxienez 80 ordu eta gehienez 135 ordu emango dira. Orduko gehienez ere 30 euroko dirulaguntza emango da eta kontratu osorako gehienez ere 4.000 €.

Enpresa bakoitzeko laguntzak guztira gehienez ere lehendabiziko urtean 14.300 € (5.500 € + 4.800 € + 4.000 €) izango dira eta bigarrengoan 3.600 €.

Enpresa bakoitzak bi urtetan gehienez jasoko duen diru-laguntza 17.900 € izango dira.

11. artikulua. Ezagutzaren transmisioa egiaztatzea.

Jarduerari atxikitako ezagutzaren transmisioa ebidentzia nahikoak aurkeztuta egiaztatu beharko da, negozioaren know-how-aren transferentzia erreala eta eraginkorra gertatu dela egiaztatzeko.

Horretarako, ezagutza transferitzeko plan bat aurkeztu beharko da, transferitu beharreko helburuak, egutegia eta edukiak jasoko dituena, bai eta horiek gauzatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa ere, hala nola formalizatutako kontratuak, jarraipen-txostenak edo prozesuaren garapena egiaztatzeko aukera ematen duen beste edozein ebidentzia.

Udalak zenbait ebidentzia osagarri eskatu ahal izango ditu baldintza hori behar bezala egiaztatutzat jotzeko.

12. artikulua. Eskariak aurkezteko lekua eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskariak aurkeztu daitezke, pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki.

— El segundo año, 5 €/m²/mes, hasta un máximo de 300 €/mes.

No obstante, el importe máximo de la ayuda no podrá superar en ningún caso la renta debida.

Compra de local: La ayuda económica para la adquisición de locales se cuantificará en un importe equivalente a la ayuda que percibiría dicho local por su arrendamiento en el plazo máximo de percepción de dicha subvención, es decir, durante 2 años.

La base para el cálculo de la cuantía de la subvención será la correspondiente exclusivamente a los gastos de alquiler (excluido el IVA y el pago y retenciones de otros impuestos y tasas) y no se tendrán en cuenta otros gastos que puedan estar vinculados al uso del local (gastos de comunidad, de agua y electricidad, etc.).

Para poder seguir percibiendo la subvención durante el segundo año, será necesario solicitar la prórroga de la subvención en la convocatoria anual correspondiente, siendo la subvención total obtenida en las diferentes convocatorias la correspondiente a gastos de alquiler de un máximo de 24 meses.

* Línea 3: Gastos relacionados con la transmisión del conocimiento o know-how, hasta 4.000 €.

Asimismo, se subvencionarán los gastos relacionados con la transmisión del conocimiento del negocio o know- how y se podrá hacer efectiva una de las dos opciones siguientes:

— Contratación del titular anterior por parte de la persona o entidad que asume la actividad económica.

Serán subvencionables los gastos relacionados con esta contratación cuando su objeto principal sea la transmisión del conocimiento, la experiencia y el know-how operativo de la actividad. Serán subvencionables los gastos salariales vinculados a la contratación del anterior titular y las cuotas empresariales de la Seguridad Social. El contrato tendrá una duración mínima de media jornada y máxima de tres meses.

